

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Eskumenen eskuordetzea

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren arautegia arautzen duenak, 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, haren Administrazio Kontseiluari dagokio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza eta Kudeatzailtzaren administrazio bidea agortzen ez duten egintza administratiboen aurkako gora jotzeko errekurtsioak ebaztea. Eskumen hori, ordea, Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren edo lehendakariordearen esku utzi daiteke.

Era berean, 25/2012 Foru Dekretuaren 32., 30. eta 31. artikuluen arabera, Administrazio Kontseiluak emandako ebazpenak direnean, haren eskumena da hala jurisdikzio zibilera edo lan arloko jurisdikziora jo aurretiko administrazio erreklamazioak aztertzea eta ebaztea nola berraztertzeke errekurtsioa eta berrikusteko errekurtsio berezia jartzea.

Dekretu horren 6. artikuluen arabera, Administrazio Kontseiluak eskumenak eskuordetu ahal dizkie kideei. Egintza hori 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenaren, 13. eta 16. artikuluetan xedatutakoak arautuko du. 30/1992 Legea baliogabetuta dagoenez, 25/2012 Foru Dekretuan agertzen diren haren aipamenak ulertu beharko dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen artikuluei eginak, hain zuzen, aplikagarriak izango dira lege horren 9. eta 12. artikuluk. Eskumenak eskuordetzeko Kontseiluko kideen gehiengo osoaren aldeko botoak beharko dira.

Esparru horretako kudeaketa erraztu eta bizkortzeko, 40/2015 Legearen 3. artikuluan eta Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikuluan jasotakoaren arabera, onartzen da Administrazio Kontseiluko lehendakariari eskuordetzea aipatutako administrazio errekurtsioak ebaztearekin zerikusia duten eskumenak, bai eta jurisdikzio zibilera edo lan arloko jurisdikziora jo aurretiko erreklamazioak ebazteko eskumena ere, 40/2015 Legearen 9. artikuluan eta aipatutako gainerrako manuetan xedatutakoarekin bat etorritik. Horiek horrela, administrazio kontseilu honek hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Kontseiluaren lehendakariaren esku uztea ondoko eskumenak:

- a) Administrazio Kontseiluaren egintzen eta erabakien aurkako berraztertzeke errekurtsioak ebaztea.
- b) Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Zuzendaritzaren eta Kudeatzailtzaren egintza eta ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioak ebaztea.
- c) Administrazio Kontseiluaren egintzen aurkako berrikusteko errekurtsio bereziak ebaztea.
- d) Jurisdikzio zibilera edo lan arloko jurisdikziora jo aurretiko erreklamazioak ebaztea.

Bigarrena. Eskuordetze honek izaera mugagabea du, eta egikaritzeko eskumena baino ez du eskualdatzen, ez haien titulartasuna.

Hirugarrena. Eskumen eskuordetzeen ondorioz onartutako ebazpenek berariaz adierazi beharko dute gorabehera hori. Halaber, berariaz adieraziko dira eskuordetzea egiten duen organoa eta eskuordetzearen berri ematen duen argitalpen ofiziala.

Laugarrena. Erabaki honen gai den eskumen eskuordetzeak ez du eskumenak eskuordetzan ematen dituen organoaren eskumena aldatzen, eta Administrazio Kontseiluak eskuordetze hori baliogabetzeko edo eskumen horiek berriro bereganatzeko ahalmena izango du, egoki jotzen dituen gaiak edo prozedurak aztertzeko edo ebazteko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bosgarrena. Baliogabetu egiten da Administrazio Kontseiluaren 2014ko martxoaren 25eko Erabakia, eskumenak Administrazio Kontseiluaren lehendakariordearen esku uzten dituen, bai eta erabaki honetan xedatutakoaren aurka doan maila bereko edo apalagoko beste zernahi arau ere.

Seigarrena. Erabaki honek onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratu ala ez gorabehera.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 21a

Gizarte ongizaterako foru erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakaria
M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO